Estalkiak: malda %25 eta %35 artekoa izango da eta estaltzeko materiala zeramikazko teila gorria izango da.

Solairuaren azaleraren % 30ean, gehienez, estalki laua jar daiteke.

Debekatuta egongo da gainaldearen planoa baino kanporago elementuak egotea, aireztapenerako eta ke edo gasak husteko tximiniak, eta espediente hau onestean dauden txapitula edo txoritokiak izan ezean. Horiez gainera, hemendik aurrera egiten direnak salbu izango dira baldintza hauek betez gero:

- gehieneko luzera: gainaldeko isurkiaren luzeraren %15.

- aurreko eta alboetako itxiturak: fatxadaren planoa baino 0,50 m atzerago gutxienez, bai eta gailurreko lerro guztiak (limatesa eta limahoya) baino atzerago ere.

- bi isurkikoa.

- Estalkipeko eremuetako bizigarritasuna hobetu behar dute, eraikuntza aukera egokientzat jotzen direnean, behar bezala frogatuta.

Lurzatien itxiturak:

Nahitaez egin behar da herri erabilera eta jabariko espazioen aurrean; ondoko arauei lotuta egin behar dira:

- Eraikinaren fatxadak duen tratamendu bera izango duen harrizko hormatxoa, 1 metroko garaierakoa, espaloiaren edo gune askearen sestratik neurtuta.

- Metalezko sare gardena edo palaxua, gehienez 2 metroko altuerakoa. Palaxua, gutxienez, zedarritik 0,5 metrora landatuko da.

Alboetako mugetan edo/eta gailurretakoan:

- Itxitura gardena edo palaxua, gehienez 2 metroko altuerakoa; gehienez metro bateko hormatxoa baimendu daiteke.

Gainerako parametroak: Atal honetan araupetu ez diren parametroek, kasu bakoitzean, arau hauetako izaera orokorreko araudian eta aplika daitekeen legedian ezarritako baldintzak beteko dituzte.

Cubiertas: tendrán una pendiente entre el 25 y 35 % y el material de cobertura será teja cerámica, de color rojo.

Se permitirán cubiertas planas en un porcentaje no superior al 30% de la superficie ocupada en planta.

No se admitirán elementos que sobresalgan del plano de cubierta a excepción de chimeneas de ventilación y evacuación de humos o gases, y a excepción de buhardas o txoritokis existentes en el momento de la aprobación del presente Expediente, y los de nueva creación que cumplan las siguientes condiciones:

-longitud máxima: 15% de la longitud del faldón de la cubierta donde se ubiquen.

-cerramientos frontal y laterales: retranqueados 0,50 m. mínimo de los planos de fachada y de cualquier línea de cumbrera, limatesa y limahoya.

-cubierta a dos aguas.

-serán elementos que sirvan para mejorar la habitabilidad de los espacios de bajocubierta existentes, cuando se justifique suficientemente la idoneidad de esta opción frente a otras soluciones constructivas.

Cierres de parcela:

Será obligatorio en el frente a los espacios de usos y dominio público y estará ejecutado conforme a las siguientes normas:

- Murete de piedra o con el mismo tratamiento de la fachada de la edificación de 1 m. de altura, medido desde la rasante de la acera o espacio libre.

- Reja metálica transparente o seto vegetal hasta la altura máxima total de 2 m. El seto estará plantado a una distancia mínima de 0,5 m. del lindero.

En los linderos laterales y/o testero:

- Cierre transparente o vegetal hasta una altura máxima de 2m., admitiéndose murete hasta 1 m. de altura máxima.

Resto de parámetros: los parámetros no regulados en este apartado, estarán sujetos, en cada caso, a las condiciones establecidas en la Normativa de carácter general de estas Normas y a la legislación que pueda serles de aplicación.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**6.686**

**924/2006 FORU AGINDUA, 2006ko urriaren 20koa, Añanako Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. xedapen aldaketaren espedientearen onespen partzialari buruzkoa.**

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2005eko urriaren 28an Añanako Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. xedapen aldaketa hasieran onestea erabaki zuen (OR-3 hiri lurren zabalkuntza eta beste gai batzuk), eta espedientea hilabetean jendaurrean jartzea ere bai. Horretarako iragarkia argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (132. zenbakia, 2005eko azaroaren 23koa) eta “El Correo” egunkarian (2005eko abenduaren 7an).

BIGARRENA.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Udalak, 2006ko martxoaren 27ko bilkuran, espedientea behin-behinean onetsi zuen eta Arabako Foru Aldundiari bidali zion. Aldundiak behin betiko onetsi zuen 2006ko maiatzaren 16an.

HIRUGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek hirigintza arloko zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren esku uzteari buruzko martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuaren Eranskinaren a) idatz-zatiko hirugarren puntuan xedatutakoarekin bat etorrita, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedienteari buruzko irizpena eman zuen urriaren 2an egindako 7/2006 batzarrean.

Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko, Arabako Hirigintza Batzordeak espedienteari buruzko irizpena eman zuen urriaren 9ko 8/2006 batzarrean.

OINARRIAK

LEHENENGOA.- Behin betiko onespenerako aurkeztu den espediente honetan hainbat xedapen aldaketa bildu dira; hona:

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**6.686**

**ORDEN FORAL 924/2006, de 20 de octubre, en relación con la aprobación parcial del expediente de 4ª Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Añana.**

ANTECEDENTES

PRIMERO.- Con fecha 28 de octubre de 2005 el Ayuntamiento de Añana acordó aprobar inicialmente el expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referente a la ampliación del suelo urbano OR-3 y otros temas, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncios en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 132, de 23 de noviembre de 2005 y en el periódico El Correo, de 7 de diciembre de 2005.

SEGUNDO.- Durante el periodo de información pública no fueron presentadas alegaciones, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 27 de marzo de 2006, a su aprobación provisional y remitió el expediente a la Diputación Foral para su aprobación definitiva el día 16 de mayo de 2006.

TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 7/2006 de 2 de octubre.

Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 8/2006, 9 de octubre.

FUNDAMENTOS

PRIMERO.- El expediente presentado para su aprobación definitiva agrupa varias modificaciones puntuales, que son:

a) Hiru lurzoru gisa birsailkatzea (SUR-2) 49-1-1002 lursaila; gaur egun lurzoru urbanizaezina da eta nekazaritzako aldean (13) dago. Aldaketa honen arrazoia hauxe da: Arau Subsidiarioak onetsi ondoren ohartu gara hizpide dugun lursaila hiri lurzorukoa izan daitekeela, legezko betekizunak betetzen baititu, eta horregatik erroretzat jo dugu Arauetan hala sailkatuta ez egotea. Halaber, honekin batera mugakide duen 49-1-1003 lursailaren sailkapena ere era berean aldatu da (bestearen sarbidea da).

b) 49-1-91-A lursaila, gaur egun hiri lurzorukoa dena (SUR-2), birsailkatzea: aurrerantzean “aparteko natur balioko” lurzoru urbanizaezina izango da. Hiri lurzoruaren sailkapena kentzeko arrazoia da ez dituela betetzen halakoa izateko behar diren betekizunak eta orografia ez dela egokia.

c) Gesaltza Añana eta Atiegako SUR-2 sektoreko nekazaritzako biltegien eta industrien gehieneko garaiera aldatzea (lehen 6 m eta orain 7) egungo nekazaritzako makinen inguruko arrazoiak direla eta.

d) SUR-2 sektoreko hiri lurzoruko 49-1-1035 eta 49-1-1036 lursailetan egitekoa zen kalea ezabatzea; izan ere, dagoeneko zoladura jarrita dagoen tartea bakarrik errespetatuko da, bideak beste era batera antolatu dira eta UE-02 zedarritu da.

e) 642 lursaileko 3,50 metroko zerrenda bati C.1.5. kalifikazioa eman zaio (bide komunikazioak) 639 lursailerako sarbidea egiteko, baina ez da zehaztu nola kudeatu eta egingo den bide hori (gaur egun 639 lursailak ez du sarbiderik).

f)

f.1 Kalifikazio orokorraren planoan eta lurraldearen egitura orokor eta organikoaren eta lurzoru urbanizaezinaren zona banaketako planoan A-4357 auzo bidea sartzea (San Juan de Arceko komentua), bide komunikazioak babesteko 17. zonaren barruan. Aldaketa hau Arabako Foru Aldundiko Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuak egindako txosten baten bidez justifikatu da.

f.2 Udalerriko lursailetako bideen babeserako lurzoru urbanizaezineko zona aldatzea: lehen 17. zona zen eta orain 20. zona, hain zuzen ere sortu berria den “nekazaritza komunikazioen babeserako zona”.

g) Cerca Alta kalearen zonako hiri lurren zedarriak aldatzea harresia sartzeko eta 5 metroko erreserba finkatzeko ingurabide-pasealekua egiteko (katastroko 248, 249, 250, 251, 259, 260, 261 eta 262. lursailak SUR-1 sektorean –gaur egun SUR-2– sartuko dira). Hau justifikatzeko adierazi da BEPBn ezarrita dagoela eta horren bitartez Gesaltza Añanako hirigunearen analisi tipomorfologikoa egin dela.

h) Cerca Alta kalearen eta harresiaren bitarteko lursailetan (94, 95, 112, 113, 114, 115, 116, 129, 130, 131, 132, 137, 138, 139, 140, 141, 142, 143 eta 237) aplikatzen den ordenantza aldatzea: lehen SUR-2 eta orain SUR-1. Arrazoia: lursail horiek herriko parte zaharraren BEPBn sartu dira.

i) Peruchico eta Real kaleen bitarteko lursailei (11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 152, 153, 154, 155, 156, 157. lursailaren zati bat, 158, 180, 181, 183, 184, 188, 189, 190, 192, 192, 452, 644, 645, 646 eta 647) kalifikazioa aldatzea: lehen SUR-2 eta orain SUR-1. Arrazoia: Gesaltza Añanako BEPBn sartu dira.

j) Frontoiaren inguruko lursailetan (108, 109 eta 110) SUR-2 ordenantza gabe SUR-1 aplikatzea, BEPBn sartu direla kontuan izanik.

k) Udalerriaren zedarriak aldatzea Valdegoviako mugan, oker baitaude.

l) Gesaltza Añana eta Atiegako SUR.2 ordenantzaren barruan sartzea “egoitza ez beste zerbaitetarako erabiltzen den eraikin bakar edo atxikia” eraikin mota, eta ostatu erabilera baimentzea bertan. Arrazoia: Udalaren onura.

m) Gesaltza Añanako 49-2-145, 146 eta 147. lursailen zati batzuk bide publiko kalifikatzea, herrigunera iparmendebaldetik sartzeko bidea izateko.

BIGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak egindako txostena aintzat hartuta, lursail batzuetan aplikatu beharreko ordenantza aldatuta (SUR-2 utzi eta SUR-1 ezarri) espedientean proposatzen den etxebizitzen gehikuntzak berekin ekarri behar du espazio libreen gehikuntza (5 $m^2$ gehiago gehituko den biztanleko).

HIRUGARRENA.- Beste alde batetik, Biodibertsitatearen Zuzendaritzak ohartarazi du aurreko a) eta g) puntuetako aldaketetarako (gaur egun lurzoru urbanizaezina dela birsailkatzea) ez dela aurkeztu

a) Reclasificar como Suelo Urbano (SUR-2) la parcela 49-1-1002, actualmente suelo no urbanizable, zona agrícola (13). Se justifica al observar, posteriormente a la aprobación de las NNSS su calidad de suelo urbano, al contar con los requisitos legales, entendiéndose como un error de las Normas su no clasificación como urbana, se clasifica igualmente la parcela colindante 49-1-1003 que constituye el vial de acceso a la anterior parcela.

b) Reclasificar como suelo no urbanizable de “excepcional valor natural”, la parcela 49-1-91-A, actualmente clasificada como suelo urbano SUR-2). Se justifica la pretensión de “desclasificarla como urbana” en la falta de requisitos legales para serlo, además de en la orografía inadecuada.

c) Modificar el parámetro de altura máxima para almacenes agrícolas e industrias agrarias en el SUR-2 de Salinas de Añana y Atiega, pasando de 6 mts. A 7, por motivos técnicos relacionados con la maquinaria agraria actual.

d) Suprimir la calle prevista sobre las parcelas 49-1-1035 y 49-1-1036 del suelo urbano SUR-2, respetándose únicamente el tramo ya pavimentado, se reordena la vialidad y se delimita la UE-02.

e) Se califica una franja de 3,50 mts. De la parcela 642 como C.1.5. comunicaciones viarias para dar acceso a la parcela 639 aunque no se especifica el mecanismo de gestión y ejecución de dicho vial necesario para dar servicio a la parcela sin acceso actual.

f)

f.1 Incluir en los planos de “Calificación global, estructura general y orgánica del territorio y zonificación del suelo no urbanizable” la carretera vecinal A-4357 (de acceso al convento de San Juan de Arce) dentro de la zona 17 de protección de las comunicaciones viarias. Se justifica mediante informe del Servicio de Planificación, Proyectos y Obras de la Diputación Foral de Álava.

f.2 Modificar la asignación de la zona de suelo no urbanizable de protección para los caminos de parcelaria del municipio, pasando de la zona 17 a la zona 20 de nueva creación “zona de protección de comunicaciones agrarias”.

g) Modificar la delimitación del suelo urbano en la zona de la calle Cerca Alta, incluyendo la muralla y una reserva de 5 mts. para el futuro paseo de ronda (parcelas catastrales 248, 249, 250, 251, 259, 260, 261 y 262), pasarían a formar parte del SUR-1 (actualmente SUR-2). Se justifica aludiendo a su inclusión en el PERI, y entendiéndose con ello que se ha efectuado un análisis tipomorfológico específico del Casco Urbano de Salinas de Añana.

h) Sustituir la ordenanza de aplicación (de SUR-2 a SUR-1) en las parcelas situadas entre la calle Cerca Alta y la muralla (parcelas 94, 95, 112, 113, 114, 115, 116, 129, 130, 131, 132, 137, 138, 139, 140, 141, 142, 143 y 237); se justifica la pretensión por su inclusión el PERI del Casco Antiguo del pueblo.

i) Sustituir la calificación de SUR-2 por la SUR-1 en las parcelas situadas en la zona de las calles Peruchico y Real (11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 152, 153, 154, 155, 156, parte de la 157, 158, 180, 181, 183, 184, 188, 189, 190, 192, 192, 452, 644, 645, 646 y 647).Se justifica por su inclusión en el PERI de Salinas de Añana.

j) Sustituir en las parcelas situadas en el entorno del Frontón (108, 109 y 110) la ordenanza SUR-2 por la SUR-1, teniendo en cuenta su inclusión en el PERI.

k) Modificar la delimitación del municipio en el linde con Valdegovía, por ser errónea.

l) Incluir dentro de la ordenanza SUR.2 de Salinas de Añana y Atiega el tipo edificatorio de “edificio aislado o adosado destinado a uso no residencial”, autorizándose en el mismo el uso de hospedaje. Se justifica en base a criterios de oportunidad municipal.

m) Calificar como vial público parte de las parcelas 49-2-145, 146 y 147 de Salinas de Añana, en aras de conseguir un espacio público a modo de entrada al núcleo desde el Noroeste.

SEGUNDO.- En atención al informe emitido por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, el aumento del número de viviendas posibles que se plantea en el expediente al variar la ordenanza de aplicación sobre ciertas parcelas (SUR-2 al SUR-1), deberá estar acompañado de la mayor provisión de Espacios Libres (5 $m^2$ por habitante que se incrementa).

TERCERO.- En otro orden de cosas, la Dirección de Biodiversidad advierte de que para las modificaciones a y g, que plantean la reclasificación de actual suelo no urbanizable no se

ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlana, beharrezkoa izan arren.

Honi dagokionez, g) aldaketaren funtsa ez da, izatez, lurzoru urbanizaezineko finka bat hiri finka bihurtzea; aitzitik, helburua Plangintzako Arau Subsidiarioetako akats bat zuzentzea da, Probintziako Arau Subsidiarioek eta 2001. urtean familia bakarreko etxe bat eraikitzeko eman zen hirigintzako lizentzia batek erakusten duten bezala. Hori dela eta, ingurumen eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlana ez da beharrezkoa.

LAUGARRENA.- Azkenik, hauxe adierazi behar da:

a) Espedientean ez da ezarri 639. lursailaren sarbidea lortzeko erabiliko den kudeaketa-mekanismoa, ez eta 146. lursaila zabaltzeko erabiliko dena ere.

b) Kontraesan bat aurkitu da aurkeztutako dokumentazioan: aldaketaren memorian azaldu da 49-1-91-A lursaila hiri lurzorukoa izatetik “aparteko natur balioko” lurzoru urbanizaezina izatera pasatuko dela, baina planoetan 4. zona da, “Baso zona eta zaharberritzeko substratu makalaren gainean”.

Horren arabera eta neure eskumeneko ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

LEHENENGOA.- Añanako Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. xedapen aldaketaren behin betiko onespena bertan behera utzi da 49-1-1002 lursaila hiri lurzoruko sailkatzeari dagokionez.

BIGARRENA.- Behin betiko onetsi dira Añanako Udalak sustatu eta tramitatutako Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. xedapen aldaketaren dokumentuko gainerako puntuak, zenbait aldaketa ezarrita:

I.- g) aldaketak ekarriko duen etxebizitza gehikuntzari dagokion espazio libreen gehikuntza ezarri behar da; aldaketa honek lursail hauek ukituko ditu: 94 eta 95; 112 – 116 bitartekoak; 129 – 132 bitartekoak; 137 – 143 bitartekoak eta 237.

II.- 639. lursailaren sarbidea egiteko eta urbanizatzeko eta 146. lursaila zabaltzeko erabiliko den kudeaketa-mekanismoa ezarri behar da.

III.- Laugarren oinarrian aipatutako kontraesana zuzendu behar da (49-1-91-A lursaila).

HIRUGARRENA.- Aurreko bi puntuetan azaldutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

LAUGARRENA.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratuko da.

BOSGARRENA.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, norbanakoek ondoren zehaztuko diren errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte beraren aurka, eta euren interesen alde egiteko bidezko deritzeten neurriak ere abiarazi ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesatuek berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete, eta beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabete izango da, hura jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Hau denek jakin dezaten argitaratu da.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 20a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

acompaña el preceptivo estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, siendo esto necesario.

A este respecto la modificación g no trata realmente de la reclasificación de una finca del suelo no urbanizable al urbano, sino que corrige un error de las Normas Subsidiarias de Planeamiento como se ve en el plano de Normas Subsidiarias Provinciales, así como en la licencia urbanística concedida el año 2001 para una edificación unifamiliar; por tanto no es necesario el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

CUARTO.- Finalmente señalar lo siguiente:

a) El expediente no señala el mecanismo de gestión empleado en la consecución del vial de acceso a la parcela 639, así como del ensanchamiento planteado en la parcela 146.

b) Existe una contradicción en la documentación presentada, pues en la memoria de la Modificación se dice que la parcela 49-1-91-A pasa de suelo urbano a suelo no urbanizable “de excepcional valor natural”, cuando en los planos se grafía como Zona 4 “Forestal y a Restaurar sobre sustrato frágil”.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

PRIMERO.- Suspender la aprobación definitiva del expediente de 4ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Añana en lo que atañe a la clasificación como suelo urbano de la parcela 49-1-1002.

SEGUNDO.- Aprobar definitivamente el resto del documento de 4ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Añana, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes modificaciones:

I.- Aportar la mayor provisión de espacios libres derivada del incremento residencial que posibilita la modificación “g” y que afecta a las parcelas 94 y 95; 112 a 116; 129 a 132; 137 a 143 y 237.

II.- Señalar el mecanismo de gestión de la ejecución de la consecución y urbanización del vial de acceso a la parcela 639, y el ensanchamiento previsto en la parcela 146.

III.- Corregir la contradicción señalada en el fundamento cuarto, en relación con la parcela 49-1-91-A.

TERCERO.- Ninguna de las modificaciones señalada en los dos dispongos anteriores es sustancial, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de delcarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

CUARTO.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

QUINTO.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.”

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2006.– La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**6.687**

**934/2006 FORU AGINDUA, 2006ko urriaren 20koa. Kanpezuko Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa baten espedientearen behin betiko onespena: linea elektrikoak lurzoru urbanizaezinean.**

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- 2005eko abenduaren 12an Kanpezuko Udalak Plangintzako Arau Subsidiarioen xedapen aldaketa baten espedientea

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**6.687**

**ORDEN FORAL 934/2006, 20 de octubre, en relación con la aprobación definitiva del expediente de la Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Campezo, referente al uso de tendido de redes eléctricas en suelo no urbanizable.**

ANTECEDENTES

PRIMERO.- Con fecha 12 de diciembre de 2005 el Ayuntamiento de Campezo acordó aprobar inicialmente el expediente de